


BAJAURI - LOZA



Encuadre geográfico

Este recorrido transcurre por tierras de los municipios de Treviño (Bajauri), Peñacerrada (Loza, Baroja, Peñacerrada) y por los terrenos de la Comunidad de Laño, Pipaon y Peñacerrada. El itinerario recorre la cumbre de Jaundel (1.033 m.) sin ascender hasta este. No obstante el desnivel no es muy elevado, ya que el pueblo de Bajauri se encuentra a una altura de 800 m. Desde este lugar se obtienen muy bellas vistas del sur Treviño (mirando hacia el Norte) y de Sierra Cantabria (mirando hacia el Sur).

Fauna y vegetación

En nuestro recorrido encontraremos dos tipos de formaciones vegetales; el hayedo y las repoblaciones forestales. El hayedo se extiende desde Bajauri hasta la cumbre del Jaundel; se trata de un hayedo muy aclarado y agradable de ejemplares altos (sin descabezar o tantadui). De aquí hasta Loza encontramos una de las zonas de Alava de mayor producción forestal, donde aparecen alternos el pino laricio (*Pinus nigra*) el pino silvestre (*Pinus sylvestris*) y el abeto Douglas (*Pseudotsuga menziensis*). Sorprende al paseante el aspecto de los cortafuegos realizados entre las parcelas repobladas; en ellos se roturó el suelo y se sembró hace ya años un césped natural. Desde hace más de 6 años estos prados cortafuegos se mantienen sin más intervención que la del ganado, que se encarga de mantener al nivel la hierba.

La fauna es la típica forestal, pero además de las especies típicas podemos ver águila real, águila culebrera e incluso águila perdicera. Entre los grandes mamíferos destacan el corzo y el jabalí.

Datos históricos

Loza: Entre los edificios más relevantes de Loza citaremos a la Parroquia de San Esteban, construcción del siglo XVI costada por los Sarmiento, señores de la torre, cuyo escudo de familia se encuentra esculpido en una clave de la cubierta de la iglesia. La actual casa de labranza número 7 fue en su momento una casa fuerte.

Yacimientos: A pesar de ser los más conocidos los de ámbar, también existen yacimientos arqueológicos. Al igual que en Laño y en Faido nos encontramos con cuevas artificiales altomedievales; Peña Hueca es la mayor de todas. En la pared de la izquierda, cerca de la entrada tiene dos ciervos grabados. Las otras dos cuevas, más pequeñas, se hallan cerca. Son El Horno y El Campanario

RECORRIDO

0 Km. / 0 h. 0' Iniciaremos nuestro recorrido en el pueblo de **Bajauri**. Saldremos cruzando la carretera que corta el pueblo y transitando junto al bonito y viejo frontón. Tomaremos una pista que nos saca del pueblo hacia el Este. Debemos estar atentos, ya que a los 100 mts, tenemos que cruzar una campa que está a nuestra derecha, por un camino muy poco marcado. Llegaremos a una pista, que tomaremos a la derecha, para enseguida toparnos con la carretera que une *Bajauri* y *Lagrán*. La seguiremos durante escasos metros y, en la siguiente curva cerrada que nos encontramos, nos internaremos en el hayedo. Debido a la hojarasca es complicado ver el sendero, pero la dirección que debemos tomar es clara, hacia arriba.

1 Km. / 0 h. 20' Tras superar el pronunciado repecho tomaremos una nueva pista, que transcurre entre el bosque y los pastizales que veremos a nuestra izquierda. Se trata de un cómodo camino que, si la niebla nos lo permite, nos ofrecerá unas bonitas vistas de la *Sierra Cantabria*. Seguiremos por esta pista un buen trecho, giraremos a la izquierda, cuando el camino se topa con el bosque. Este nuevo sendero describe en su inicio un suave ascenso, enseguida nos encontraremos con un nuevo cruce, donde deberemos abandonar el camino que llevábamos hasta ese momento, para girar a la derecha.

4,5 Km. / 1 h. 20' Llegaremos al "*Mojón del Avellano*", lugar que delimita el municipio de *Lagrán* y el *condado de Treviño* y que nos resultará conocido, ya que hemos transitado por él en anteriores salidas. Cuando el camino se interna en el bosque, nos encontraremos una señal vertical del GR 38, que nos indicará el camino a seguir para ir a *Lagrán*, a *Laño*. Nos dirigiremos hacia el monte *Jaundel*, sin un camino marcado en primera instancia pero más claro después. Transitaremos por un hayedo que mezcla el pardo manto de hojas típico de este tipo de bosques y el verde de los nuevos brotes ya presentes en la mayoría de las hayas, dibujando un paisaje realmente espectacular. Continuaremos el ascenso hasta que nos encontramos con un punto en el que el camino se divide en dos, el camino de la izquierda nos lleva hasta la cima del *Jaundel*, nosotros seguiremos el de la derecha que inicia el descenso saliendo del hayedo, entre matorral bajo.


6 Km. / 2 h. El sendero estrecho y pedregoso se convierte enseguida en una pista herbosa, que hará muy cómodo el caminar. A partir de este punto, solamente nos quedará transitar por esta ancha pista donde son de destacar los cortafuegos que veremos a nuestra izquierda, ya que están muy lejos de la típica imagen que tenemos de estos. Un proyecto del Gobierno Vasco se encargó de darles un aspecto más natural, sembrando hierba y haciendo que no destaquen tanto en el entorno.

7,5 Km. / 2 h. 30' En el punto más alto de este camino, pasaremos junto al índice geodésico que nos indica la cima del **Juandel** (no del *Jaundel*), lugar donde, si el tiempo lo permite, haremos el merecido almuerzo. Tras pasar sucesivas puertas metálicas para ganado (hasta 4), saldremos a un claro donde nuestro sendero se divide, continuando por el de la derecha. Siguiendo por este camino y tras un suave descenso en un principio y más fuerte al final llegamos a *Loza*.

10 Km. / 3 h. 10' Antes de iniciar la última parte del descenso (un poco más fuerte), merece la pena detenerse, ya que las vistas que este punto nos ofrece son únicas (*Loza*, *Peñacerreda*, *el desfiladero de Berganzo*, *el puerto de Rivas*, *la Sierra Cantabria*,...).

11,5 Km. / 3 h. 30' Llegamos a **Loza**.

BAJAURI - LOZA



Kokapena

Ibilbide honek Trebiñu (Bajauri) eta Urizaharra (Loza, Urizaharra, Baroja) udalak eta Laño-Pipaona-Loza Partzuergoaren lurak zeharkatzen ditu. Jaundel gailur duen mendilerrotik doa gure ibilbidea, baina Jaundelera (1.033 m.) igo gabe. Altuera handian ibiliko gara, baina, hala ere, aldapa ez da batere gogorra, Bajauri herria 800 metrotan dago eta. Toki honetatik oso ikuspegi politak daude bai iparralderantz, Trebiñurantz, eta bai hegoalderantz, Kantauria mendilerrotantz.

Landaretza

Gure ibilbidean bi landaretza mota nagusi aurkituko dugu; pagadia eta baso landaketak. Pagadiak Jaundelen Iparekialdeko isurialdean zabaltzen da Bajauriraino. Pagadi irekia, iluna, atsegina eta udaberrian berde fresko eta magikoa erakusten duena. Zuhaitz altuak dira, tantadua beraz, egurgileentzat oso preziatuak. Jaundeletik Lozarantzko lurak Arabako baso ekoizpen handiko eremua dira, Arabako ekoizpen handienekoak. Hor pinu beltza (*Pinus nigra*), pinu gorria (*Pinus sylvestris*) eta Douglas izeia (*Pseudotsuga menziensis*) tartekatzen dira. Landaketa hauen artetik suebaki pista asko ateratzen dira. Haien itxurak bidaiaria harritzen du; zelai berde eta lauak dira. Arabako Diputazioko teknikari baten ekimenari esker lurra prestatu, belarra erein eta zelai hauek sortu ziren. Geroztik mantenimendua abereen kontura izan da (behiak eta zaldiak). Hemengo fauna basokoa da. Baina hauez gain arrano beltza, arrano sugezalea eta Bonelli arranoa agertzen dira. Ugaztun handien artean orkatza eta basurdea daude.

Historia oharrak

- Loza: Lozako eraikuntza inportanteenen artean San Esteban Parrokia dago. XVI. mendean eraiki zuten Sarmientotarren ordainduta. Familia honen armarrria elizaren estalkiko giltzarri batean zizelkatuta dago. Garai batean, 7 zenbakidun baserria jauretzea izan zen.

- Aztarnategiak: Gaur egun ezagunak dira anbar aztarnategiak, baina horiek ez dira bakarrak. Lañon eta Faidon bezala Goi ertaroko kobazulo artifizialak daude. Ikusgarriena Peña Hueca da. Ezkerreko horma, atearen ondoan, bi orein landuta daude. Beste bi kobazuloak gertu daude; El Horno eta El Campanario izenekoak.

IBILBIDEA

0 Km. / 0 h. 0' Gure ibilbidea **Bajauri** herrian hasiko da. Herria mozten duen errepidetik aterako gara, oso polita eta zaharra den pilotalekuaren ondotik ibiliz. Ekialderantz abiatzen den pista hartuko dugu. Adi egon beharko dugu, oso gutxi ikusten den bidexka batetik, gure eskuinean dagoen landa gurutzatu beharko dugu eta. Mendi bide batera ailegatu eta gero, eskuinera joko dugu, *Bajauri* eta *Lagrán* lotzen duen errepidera heltzeko. Errepide honetatik metro gutxi ibiliko gara eta, berehala, Bihurgune itxi batean pagadian sartuko gara. Orbelagatik bidea ez da oso ondo ikusten, baina norabidea zein den argi dago, gorantz.

1 Km. / 0 h. 20' Aldapa gora gogorra pasatu eta gero, beste pista bat hartuko dugu, basoa eta soroen artean joaten dena, hain zuzen ere. Oso bide eroso da eta, lainoak uzten badigu, leku honetatik *Cantabria mendizerraren* bistak ikusgarriak ikusiko dugu. Mendi bide honetatik jarraituko dugu zati luze batean, gero, basoa gure aurrean agertzen denean, ezkerretara jo beharko dugu. Pista berri honek, gorantz joko du. Berehala bidegurutze batekin egingo dugu topo, eskuinera biratuz.

4,5 Km. / 1 h. 20' "*Mojón del avellano*" lekura ailegatuko gara. Leku honek *Lagrango udala* eta *Trebiñoko konderrria* mugatzen ditu. Beharbada ezaguna egingo zaigu, beste irteera batean hemendik pasatu ginen eta. Bidea basoan sartzen denean, *GR 38-ko* seinale bat aurkituko dugu. *Lagran*, *Loza* eta *Jaundel mendira* joateko bideak seinalatzen dituena. Azken norabide hau hartu beharko dugu. Pagadi honetan, lurrean dauden hosto arreak eta ateraberriak diren kimu berdeak nahasten dira, paisaia eder bat osatuz. Igotzen jarraituko dugu, bidegurutze batera heldu arte. Ezkerreko bidea hartzen badugu, Jaundel mendira helduko gara, gu berriz, eskubira joango gara, pagaditik ateratzeko.

6 Km. / 2 h. Harritsu eta estua den bidea, berehala, belar pista bihurtuko da. Bide honetan, ezkerrean ikusiko ditugun suebakiak aipatzeko modukoak dira, *Eusko Jaurlaritzak* naturalizatzeko proiektu bat egin baitzuen. Belarra erein zuten eta hauek suebakien itxura aldatu dute erabat.

7,5 Km. / 2 h. 30' Bide honetako puntu altuenean, **Juandel** (ez *Jaunde*) gailurra indikatzen duen indize geodesikoaren ondoan pasatuko gara. Hemen eguraldiak uzten badigu, hamaiketako egingo dugu. Metalezko lau ate pasa eta gero landa batera aterako gara, leku honetan gure bidea banatzen da, eskuinerantz jarraituz.

10 Km. / 3 h. 10' Jaitsiera hasi baino lehen, merezi du gelditzea bidez gozatzeko, hemendik *Loza*, *Urizaharra*, *Berganzoko haitzartea*, *Rivas mendatea*, *Cantabria mendizerra*,... ikus baititzakegu.

11'5 Km. / 3 h. 30' Jaitsiera gogorraren ondoren, **Lozara** helduko gara.